

23.korrika



Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



## 23. KORRIKAK herri oso baten harrotasuna erakutsiko du Irundik Baionarat

AEK-k antolatuta, euskararen herria zeharkatuko du 23. KORRIKAK martxoaren 14tik 24ra, Irundik Baionarat. Aurtengo leloa "Harro Herri" izango da, euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasunaren adierazle eta erakusle. Omendua, bestalde, Azterketak Euskaraz kolektiboa izango da.

KORRIKAREN 23. edizioaren aurkezpen-ekitaldia egin du gaur goizean AEK-k, Donostiako San Telmo Museoan. Bertan, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak aurtengo mezua, iruditeria eta leloa erakutsi ditu. Halaber, azken horri jarraikiz ("Harro Herri"), KORRIKA honen "bidelagunak" ere bildu dira ekitaldira, eta argazki jendetsua atera dute euskal komunitatearen indarra eta harrotasuna erakusteko.

Oraingo honetan, euskararen aldeko mobilizaziorik handiena Irunen hasiko da, martxoaren 14an; eta, hamar gauren eta hamaika egunen buruan, Baionan amaituko da, Lapurdiko hiriburuan. Han, lekuko barruko mezu sekretua irakurtzeaz gain, egun osoko jai-egitarauaz gozatzeko parada izango da.

### Harro Herri

AEK-k aurkezpen-ekitaldian gogorarazi bezala, «aurreko edizioko parte-hartze masiboak argi utzi zuen gure hizkuntzaz harro gaudela eta guztion artean komunitate sendoa osatzen dugula. Oztupo guztiak gainditzeko gai den herri harroa, eta harro KORRIKAN». Hala aitortu du Aitziber Balantzategi Ibargoitia AEK-ko Artezkaritza-kontseiluaren lehendakariak eta KORRIKA batzordeko kideak: «KORRIKAK herri-aldarri alai eta tinkoa izan nahi du, eta, oraindik ere, aurreko KORRIKAKO indar-erakustaldia oso iltzatuta dugu begiradan».

#### ARABA

Arana kalea, 30  
01002 GASTEIZ  
946 464 000  
araba@korrika.eus

#### BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a  
48005 BILBO  
946 464 000  
bizkaia@korrika.eus

#### GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea  
20001 DONOSTIA  
946 464 000  
gipuzkoa@korrika.eus

#### IPARRALDEA

Marengo karrika, 22  
64100 BAIONA  
05 59 25 76 09  
iparraldea@korrika.eus

#### NAFARROA

Errekoleta 16, behea  
31001 IRUÑEA  
946 464 000  
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Halere, harrotasun hori konformismoarekin ez nahasteko azpimarratu du Balantzategik. Era berean, erakundeek euskararen normalizazioan duten «ardura garrantzitsua» ekarri du gogora: «Herritarren ahaleginaz batera, hizkuntza-politika ausartagoa eta inbertsioak egin behar dituzte». Bien bitartean, orain arte bezala, KORRIKAK jasoko duen dirua euskararen normalizaziora bideratuko da Euskal Herri osoan.

Aurtengo omendua bada herritarren ahalegin horren adierazle bikaina, Ipar Euskal Herriko **Azterketak Euskaraz** kolektibo gaztea, hain zuzen ere, Frantziako Estatuko hizkuntza-legeari aurre eginda baxoa eta brebeta euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzen duena. Ane Elordi Alburquerque KORRIKA koordinatzaile nagusiak adierazi legez, «gazte hauek, beren ikasketen une oso erabakigarrian, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egin dute, beren notak eta etorkizun akademikoa kaltetuak izango direla jakitun». KORRIKAK eskainiko dien omenaldia haien egoera ezagutzera emateko bozgorailu izateko esperantza aipatu du Elordik.

**ARABA**

Arana kalea, 30  
01002 GASTEIZ  
946 464 000  
araba@korrika.eus

**BIZKAIA**

Txakur kalea 1, 4.a  
48005 BILBO  
946 464 000  
bizkaia@korrika.eus

**GIPUZKOA**

Iztueta kalea 3, behea  
20001 DONOSTIA  
946 464 000  
gipuzkoa@korrika.eus

**IPARRALDEA**

Marengo karrika, 22  
64100 BAIONA  
05 59 25 76 09  
iparraldea@korrika.eus

**NAFARROA**

Errekoleta 16, behea  
31001 IRUÑEA  
946 464 000  
nafarroa@korrika.eus